


2026/27 ikasturterako GRAL proposamena nola egin


1. Ikasleak gai proposamena egin ahal izateko, tutore batekin adostuta izan behar du.
2. Gai proposamena GAUREn bidez egingo da, 2026ko martxoaren 9tik 16ra.

*2026/27 ikasturtean ikasketei berrekiteko asmoa duten ikasleak ezin dira GAUREn sartu. Hortaz, gai proposamena **Idazkaritzan aurkeztu beharko dute paperean**, taulan eskatzen den informazioa aipatuz, epe barruan eta Eskiera Orokor orri bati erantsita.

3. Irakasleak onartu egingo du proposamena 2026ko martxoaren 17tik 19ra.
4. Dekanordetzatik proposamenak baliozkotuko dira 2026ko uztailetik aurrera.
5. Ikasle bakoitzak PROPOSAMEN BAKARRA aurkeztu dezake.



1-GAUREn Karrera Amaierako Proiektuak / Gradu Amaierako Lanak atalean sartu eta Proposamenak eta Berria atalean egin klik.



2-Proiektu/Lan Proposamenaren Datuak orria irekiko da.

3- Hurrengo orrialdeko taulan aipatzen den informazioarekin beteko dira eremuak.

Eremuaren izena GAUREn	Eremuetan jarri beharreko informazioa
<u>Titulua eta Titulazioa</u>	Lanaren izenburua eta ikaslea ikasten ari den gradua aipatuko dira (<i>Gehienez 500 karaktere</i>).
<u>Azalpena</u>	1- Zer gai proposatzen den azalduko da eta graduarentzat duen garrantzia arrazoitu . (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
<u>Egin beharreko lanak</u>	1- Gaiari lotutako oinarrizko bibliografiaren bost aipamen egingo dira. 2*- Gaia lantzeko jarraituko den bidea zehaztuko da - estrategia, kronograma, etabar- (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>). <i>*Puntu hau hautazkoa da</i>
<u>Helburuak</u>	Lanaren helburuak eta aurreikusten diren ondorioak aipatuko dira. (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
<u>Orduak guztira</u>	300
<u>Iraupena</u>	1/6/2026-30/09/2027
<u>Hizkuntza</u>	Euskara, gaztelera edo ingelesa
<u>Zuzendaria</u>	Gai proposamena zein irakaslerekin adostu den adierazi.